



**UPV/EHUKO HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO KALITATEA  
KUDEATZEKO SISTEMAREN EZARPENAREN ZIURTATZE-TXOSTENA/INFORME DE  
CERTIFICACIÓN DE LA IMPLANTACIÓN DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE LA CALIDAD DE LA  
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA DE LA UPV/EHU**

**KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAREN EZARPENAREN ZIURTATZE-TXOSTENA /  
INFORME DE CERTIFICACIÓN DE LA IMPLANTACIÓN DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD**

<b>EBALUATUTAKO ZENTROAREN DATUAK/ DATOS DEL CENTRO EVALUADO</b>	
<b>Unibertsitatea/ Universidad</b>	<b>UPV/EHU</b>
<b>Zentroa/ Centro</b>	<b>Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA)</b>
<b>Norainokoa/ Alcance del SGC</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Graduak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Filosofia</li> <li>- Gizarte Antropologia</li> <li>- Haur Hezkuntza</li> <li>- Gizarte Hezkuntza</li> <li>- Lehen Hezkuntza</li> <li>- Pedagogia</li> </ul> </li> <li>• Unibertsitate masterrak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Antropologia</li> <li>- Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa</li> <li>- Filosofia, Zientzia eta Balioak</li> <li>- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza</li> <li>- Eleaniztasuna eta Hezkuntza</li> </ul> </li> </ul>

**KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAREN EZARPENAREN BALORAZIO OROKORRA /  
VALORACIÓN GLOBAL DE LA IMPLANTACIÓN DEL SGC**

Agentziako Akreditazio Instituzionalerako eta Kalitate Sistemen Ziurtapenerako Batzordeak, zentro horren KKSren ziurtapen-espedita osatzen duen dokumentazioa aztertu ondoren, balorazio orokor hau egin du:

**ALDEKOA**

**BALORAZIO OROKORRAREN JUSTIFIKAZIOA / JUSTIFICACIÓN DE LA VALORACIÓN GLOBAL**

Txosten hau egiteko, Akreditazio Instituzionalerako eta Kalitate Sistemen Ziurtapenerako Batzordeak honako kide hauek dituena:

- Javier González Benito (batzordeburua)
- María Paula Ríos de Deus (batzordekide akademikoa)
- M<sup>re</sup> Pilar Ortiz Calderón (batzordekide akademikoa)
- Madalena Patricio (batzordekide akademikoa)
- Rafael Llavori de Micheo (batzordekide profesionala)
- Andy Tunnicliffe (batzordekide profesionala)

- Markel Serrano Felipe (batzordekide ikaslea)
- Jasmina Casals Terré (idazkaria)

Unibasq-en web orrian eskuragarri dagoen Kalitatea Bermatzeko Sistemak ezartzeko Ziurtapen Ereduaren Gidan proposatutako metodologia jarraitu du. Aurkeztutako dokumentazioari buruzko iritziak eta egindako bisita-txostena aztertuta, Batzordea online bildu zen 2023ko ekainaren 9an, eta Batzordearen osoko bilkuran eztabaidatu ziren egindako ebaluazioari buruzko alderdi guztiak, bai eta KKSren ziurtapen-txosten honen ondorioak eta edukiak ere.

Txosten hau idazteko, kontuan hartu da eskuragarri dagoen dokumentazioa, bereziki aditu talde batek egindako bisita txostena. Ebaluazio Batzordeak uste du proposatutako hobekuntza-iradokizunak bat datozela AUDIT programaren helburuekin, eta baloratu egin du AUDIT programaren esparruan unibertsitate-hezkuntzaren kalitatea bermatzeko sistema ezartzeko egindako ahalegina, gaur egun ematen diren zentroko titulazio ofizial guztietara iristen dena. Gaur egungo Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA) 2016an sortu zen, orduko Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea bat eginda. Unibasq-ek 2019ko otsailaren 27an ziurtatu zuen Fakultateko kalitate sistemaren diseinua.

Emandako dokumentazioa aztertuta, eta bisitan jasotako informazioa kontuan hartuta, agerian geratu da Fakultateko Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) behar bezala ezarri dela, prozesuak etengabe hobetzera bideratuta baitago.

KKSren eraginkortasuna egiaztatu da, Fakultatean emandako titulu ofizialen kudeaketari eta etengabeko hobekuntzari dagokienez. KKSren dokumentazioa 2023/02/10ean berrikusi zen azken aldiz. Sistemak adierazle, erregistro eta ebidentzia ugari dituela, ezarpen- eta bilakaera-maila nahikoa erakusten dutenak, egiaztatu da.

KKSren dokumentazioa nahikoa da, eta kasu batzuetan sinplifikatu ere egin daiteke, adibidez, jada araututa dagoena, edo txosten batzuetan beste batzuetan agertzen dena, ez errepikatuz eta adierazleen kopurua murriztuz.

Oro har, etengabeko hobekuntza-zikloa betetzen da, jarduerak planifikatu, egin, aztertu eta hobekuntzak planteatzen diren bitartean, jarraipena eta garapena adierazita.

## LABURPEN GLOBALA IRIZPIDE BAKOITZAREN ARABERA

<b>BALIOSPENA ETA, HALA BADAGOKIO, HOBEKUNTZA-PLANA EGITEKO ALDERDIAK</b>	
<b>AUDIT irizpidea</b>	<b>Baliospena</b>
1.0. Zentroaren kalitate-politika eta kalitate-helburuak definitzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.1. Zentroaren prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.2. Zentroaren irakaskuntzak ikasleei bideratzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.3. Zentroaren langile akademikoen kalitatea bermatzeko eta hobetzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.4. Zentroaren baliabide materialak eta zerbitzuak kudeatzeko eta hobetzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.5. Zentroaren emaitzak aztertze eta kontuan hartzeko modua	Irizpidea betetzen da.
1.6. Zentroaren tituluei buruzko informazioa argitaratzeko modua	Irizpidea betetzen da.

## INDARGUNEAK / FORTALEZAS

Aurkeztutako dokumentazio guztia, bisita txostena barne, azertu eta berrikusi ondoren, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (UPV/EHU) KKSsk, Batzordearen iritziz, honako indargune hauek aurkezten ditu:

1. Zentroan ezarrita dagoen kalitatearen kultura nabarmentzen da.
2. Fakultateko Zuzendaritza Taldearen benetako lidergoa, akademikoa zein teknikoa, ikusi da sistemaren garapenean eta ezarpenean.
3. Unibertsitateak erabiltzen duen UNIKUDE aplikazio informatikoak KKSren dokumentazio guztia eskuratzea errazten du, bereziki titulazioen segimendu-adierazleak, funtsezko emaitzak eta emaitza orokorrak; horrela, prozesuak eta prozedurak jarraitu ahal izango dira.
4. Zentroaren Kudeaketa Planak eta Txostenak Fakultatearen urteko jarduerari buruzko informazio ugari biltzen du. Kalitate-politikatik titulu bakoitzean lortutako emaitzak arte aztertzen ditu, aurreko urteetako hobekuntza-ekintzen jarraipena barne, eta proposamen berriak egiten ditu, arduraduna esleituta eta egiteko aurreikusitako data adierazita.
5. KKSren ezarpenaren jarraipena egiteko aukeratutako metodologiak aurreikusitako helburuak betetzea ahalbidetzen du.
6. KKSn interes-talde guztien ekarpenak hartzen dira kontuan. Nabarmentzekoa da kanpoko interes-taldeen lankidetzak. Haiekin akordioak egiten dituzte eta unibertsitatez kanpoko harremanak sendotzen dituzte.
7. Webguneko "Kalitatearen kudeaketa" atalean, Kudeaketari eta Plangintzari buruzko Urteko Txostenak eta Titulazioen Jarraipenari eta Egiaptapenari buruzko Txostenak aurki daitezke, gizarteari eta Unibertsitateko interes-talde guztiei kontuak emateko garrantzitsutzat jotzen direnak.

## HOBEKUNTZA AUKERAK

Era berean, aurkeztutako dokumentazio guztia, bisita txostena barne, aztertu eta berrikusi ondoren, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (UPV/EHU) sistemak hobetzeko aukera hauek aurkezten ditu, Ebaluazio Batzordearen iritziz:

1. Informazio-mekanismoen eraginkortasuna baloratzeko prozesuak txertatzea, interes-taldeak, haien beharren arabera, jakinaren gainean izateko.
2. Barneko interes-talde guztien parte-hartzea sustatzea, ikasleen ordezkari batzordeetan sustatuz, tituluak eta KKS bera hobetzean arreta jarritz.
3. Fakultateko kide izateko espiritua sustatzea, zentro bakar gisa, lehendik dauden zentroen bat-egitearen jatorria dela eta.
4. KKSren berrikuspenetan, adierazleen sinplifikazioa eta erabilgarritasuna kontuan hartzea. Adibidez, adierazle bat kalkulatu ez bada edo erabiltzen ez bada, hura ezabatzea kontuan har daiteke.
5. Adierazlerik ez dagoen prozeduretan, beharrezkoak diren baloratzea. Adibide gisa, ez da adierazlerik zehaztu prozedura hauetan:
  - 1.4. Titulazioen plangintza eta akreditazioa.
  - 3.6. Gradu/Master Amaierako lanak.
6. Aginte-taula orokor bat sortzea, zentroarentzat garrantzitsuenak diren adierazleekin.
7. Batzordeen bilera guztietan aktak sistematikoki (ez bakarrik Batzorde Iraunkorren) hartzen direla bermatzeko mekanismoak indartzea, bileretara bertaratutakoak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak bilduz.

Txosten honetan ezarritakoari alegazioak egin ahal izango zaizkio, eta 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Epe hori igaro eta alegaziorik jaso ez bada, txostena behin betikotzat hartuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 22a.